

Sarrera

Gida honen asmoa da udaltzainei ematea egokienak diren prozedurei buruzko informazioa eta jarraibide-multzoa, sexu-esplotaziorako helburuarekin emakumeak salerostearen aurka esku-hartzeko; hain zuzen, hauxe lortze aldera: salerosketaren emakume biktima guztiek euren burua suspertzeko aukera eta behar den denbora izan dezaten eta euren egoerak behar duen babesa, laguntza eta trataera jaso ditzaten.

Dokumentuan oinarrizko ezagupenak ematen dira hauei buruz: sexu-esplotaziorako helburuarekin emakumeak salerostearen biktimak izan daitezkeenak detektatzea eta identifikatzea, biktimek dituzten eskubideak udaltzainek babesten lagun dezaketenak, baita udaltzainek aplika ditzaketen jarduteko prozedurak ere, salerosketaren biktimak izan daitezkeenak antzeman eta gero.

Zer da Pertsonak Salerostea?

Pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea, hartzea edo jasotzea da, indarkeria, larderia edo iruzurra erabiliz, hertsapenaren bidez, edo nagusitasun- edo ahulezia- egoera batez baliatuz. Pertsonak salerosteak honako helburuak izaten ditu: sexu-esplotazioa (pornografia barne), bortxazko lan edo zerbitzuak egitera behartzea, esklabotza, mirabetza edo eskean ibilaraztea, edota organoak ateratzea.

Sexu-esplotaziorako helburuarekin salerostea da nazioarteko eskubidearen kontrako **krimena, giza eskubideen** urratze larria eta **emakumeen kontrako indarkeriaren** adibidea, izan ere salerosketa kasuen % 98 da, gutxi gorabehera.

Zeintzuk dira biktimen eskubideak?

Salerosketaren biktima orok legeak ematen dion **ESKUBIDEA** du **esplotazio-egoeratik ateratzeko dauden aukerei** buruzko **informazio eta babesa** jasotzeko, nahiz eta bizitzeko legezko baimenik izan ez.

Legedi eta araudi guztiak: erkidegokoak, estatukoak eta autonomikoak beharra aitortzen diete sexu-esplotaziorako helburuarekin salerostearen biktimei **isilekotasuna, mediku-laguntza eta laguntza psikologikoa, doaneko laguntza juridikoa eta harrera** izateko.

Prostituzioan aritu izanagatik edo iruzurra jasan izanagatik, jarrera kritikorik ez sufritzeko eskubidea dute.

Halaber, **berehalako babesa eta segurtasun espezializatua bermatua izateko** eskubidea dute; izan ere, EAEn Ertzaintzaren eskumena baita.

Nola antzeman eta identifikatu **sexu-esplotaziorako helburuarekin emakumeak salerostearen biktimak** izan daitezkeenak

Baliteke **salerosketaren biktima identifikatzea** baldin eta jarraian datozen suposamenduak betetzen baditu:

- ▶ Behartuta egiten du lan eta esplotazio baldintza osasungaitzetan.
- ▶ Aginduak bete ezean, beraren edo bere familiaren kontrako mehatxuak jasotzen ditu.
- ▶ Iraganean prostituzioan aritu bada ere, orain bere borondatearen kontra ari da, behartuta.
- ▶ Engainatu egin dute, burutu beharreko lanari edo hori betetzeko lan-baldintzei buruz.
- ▶ Taldearen jatorriagatik edo naziotasunagatik iragarritako prostituzioan egiten du lan (adibidez: "neska orientalak").

Ikus dezagun orain **zantzuen** zerrenda, salerosketaren biktimak izan daitezkeenak antzemateko eta identifikatzeko fasea betetzen lagunduko duena:

Lan-baldintzak

Tokiak:

- Prostituzio-klubak.
- Masaje-gelak.
- Laguntzaile-agentziak.
- Pornografia produzitzearekin lotutako establezimenduak.

Diruaren kontrola:

- Gutxiago irabazten dute, nahiz eta nazioko pertsonen edo legezko egoitza dutenen zerbitzu mota bera eman.
- Irabaziak ezin eskuratu, lokalaren jabeak ordaintzen baitio hirugarren bati.
- Neurrigabeko zorpetzea establezimenduko jabearekin edo hirugarren batekin, lekualdatzeagatik, jantziak edo ostatu emateagatik, prostituzioa utzi aurretik ordaindu behar duena.
- Egunero edo astero, diru-kopuru bat lortzeko beharra.
- Ezin du bezerorik edo zerbitzurik errefusatu.

Norberaren askatasunaren murrizketak:

- ▣ Gizartetik, familiarengandik bakartzea, bakartze afektiboa.
- ▣ Lan-inguruneak izatea gehiegizko segurtasun neurriak (burdinsareak, bideo-zaintza...)
- ▣ Ustiapena egiten den tokian bizitzea edo zaintzapeko leku- aldatzea etxebizitzatik jardueraren tokira.

Adierazgarri orokorrak

- ▣ Ez du identifikatzeko agiririk (NANa, pasaporte, egoitza-txartela...) edo gezurrezko agiriak erabiltzen ditu.
- ▣ Ez du dirurik edo oso diru gutxi.
- ▣ Gaztelaniaz hitz egiteko arazoak ditu.
- ▣ Bere lanari edo bizitzari buruzko informazioa emateko mesfidantza.
- ▣ Ez daki zein hiritan bizi den, ezta zein herrialdetan ere ez.
- ▣ Mendekotasuneko markak edo osagarriak ditu (tatuajeak, budu-osagarriak...).

Hitz gabeko jarraibideak

- ▣ Hitz egiteko beldur da edo saihets-erantzunekin egiten du.
- ▣ Lokalaren beste emakume batzuekin jarrera iheskorra, hotza erakusten du.
- ▣ Aginduak jarraitzen jokatzen duela dirudi.
- ▣ Antsietatea, beldurra, mesfidantza, minberatasuna edo etsaitasuna erakusten du.
- ▣ Bere edo familiaren egoeraren beldur da.

Osasun fisikoa

- Elikadura gabezia edo deshidratazioa.
- Higiene pertsonalik ez.
- Infekzioak eta sexu-transmisiozko gaixotasunak.
- Osasun kaskarra oro har.
- Antzeman ez diren edo tratamendurik jaso ez duten gaixotasunak.
- Indarkeria fisikoa jasan izanaren zantzuak ditu, esaterako, ubeldurak, zauriak, ebakiak, erredurak, bizkarreko minak edo hautsitako hezurrak.
- Eraso edo sexu-abusuen markak.
- Nahitaezko edo indarkeriazko mediku-prozedurak (abortuak, haurdunaldiko probak...).
- Droga-mendetasuna.

Udaltzaingoaren prozedura, ahalezko biktimak antzeman eta gero

Salerosketaren biktima izan daitezkeena antzeman eta gero, udaltzaingoak haxe egin beharko luke: **Biktima bideratu Ertzaintzari**, identifikatzeko, ikertzeko, bere segurtasuneko eta zaintzeko arduraduna baita.

A. Emakumea udaltzaingora joan den guztietan:

1. Biktimari informatzea Ertzaintzarengana babes bila eta baliabideak eskuratzera joateak dituen beharrak eta aurrerapenak; hortaz, 2011ko "**Baliabide gida, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimak izan daitezkeenentzat**" izeneko emango zaio eta ahoz haxe nabarmenduko zaio:

»» Informazioaren **konfidentziasuna**.

»» **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren** doako telefonoa, 24 ordukoa: **900 840 111**, informazio gehiago izateko.

2. Ertzaintzari kasua telefonoz jakinaraztea: 112.

3. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko

Zuzendaritzaren telefonoaren bidez jakinaraztea (**900 840 111**); kasu bakoitzerako behar diren urratsak ematen hasiko baita.

4. Gertakaria jasotzea salerosketaren biktima gisa, identifikatzeko oinarrizko datuak bilduko dituen galdetegiaren bidez:

- »» Izen-abizenak/ Adina /Jaioterria/ Identifikazio-agiriaren zk./ Posta-helbidea/ Harremanetarako telefonoa.
- »» Antzematearen eta harremanaren gorabeherak.
- »» Emandako informazioaren edukia.
- »» Ebazpena: Ertzaintzari bideratzea/Besterik.



5. Txosten laburra egitea eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari eta Ertzaintzari bidaltzea.

B. Kasuren bat dagoelako zantzurik, susmorik edo ezagupenik badago:

1. Dagoen informazioa biltzen duen txosten laburra egitea eta Ertzaintzari bidaltzea.

Egoera fisikoaren premiak eskatzen badu, anbulantzia deitu eta berehala, **Ertzaintzarekin** jarri harremanetan.

Euskadiko harremanetarako telefono zenbakiak

<p>Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako arreta.</p> <p>Genero-indarkeriaren kontra lan egiten duten profesionalak egindako kontsultak erabakitzea.</p> <p>Biktimak izan daitezkeenak arreta integraleko zentrora bideratzeko arduraduna.</p>	<p>24 orduko arretarako telefono-zenbakia</p> <p> 900 840 111</p>	<p>Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza</p>
<p>Salerosketaren ustezko kasu bati buruzko informazioa emanaz gero, 112k berehala bideratuko du deia dagokion telefonora</p>	<p> 112</p>	<p>Ertzaintza</p>